

## **ITELAZPI, SAREN ADMINISTRAZIO-KONTSEILUAREN FUNTZIONAMENDU- ARAUTEGIA**



---

## DOKUMENTUAREN KONTROLA

### Parte-hartzaileak

Ataza	Izena	Kargua
Onetsi duena:	Administrazio-kontseilua	

### Memoria

Berrikuspena	Data	Aurreko berrikuspenarekiko aldaketa
01	2018/12/19	Arautegia onartzea



---

## AURKIBIDEA

1. artikulua.- Xedea.....	4
2. artikulua.- Aplikazio-eremua .....	4
3. artikulua.- Hedapena.....	4
4. artikulua.- Interpretazioa eta aldaketa.....	4
5. artikulua.- Kontseiluaren jarduteko printzipio orokorrak .....	4
6. artikulua.- Kontseiluaren egitura eta osaera .....	5
7. artikulua. Kontseiluaren ahalmenak .....	5
8. artikulua. Eginkizunak eskuordetzea .....	6
9. artikulua. Kontseiluaren presidentzia .....	6
10. artikulua. Kontseiluaren presidenteordetza.....	7
11. artikulua. Kontseiluaren idazkaritza .....	7
12. artikulua. Kontseilarien izendapena eta horiek kargua uztea.....	7
13. artikulua. Kontseiluaren bilerak .....	8
14. artikulua. Saioaren garapena eta akta.....	8



## **1. artikulua.- Xedea**

Arautegi honen helburua da ITELAZPIren korporazio-gobernuko organoaren (Administrazio-kontseilua) barne-funtzionamenduaren printzipioak eta arauak deskribatzea.

Dokumentu honek lege- eta estatutu-araudia garatu eta osatu egiten du, bertan xedatutakoa aurkatzekotan gailenduko dena.

## **2. artikulua.- Aplikazio-eremua**

Dokumentu honetan adierazitakoa aplikagarria eta nahitaez betetzekoa izango da Administrazio-kontseilua osatzen duten pertsona guztientzat. Dokumentu hau aplikagarria zaien pertsonak behartuta egongo dira hori ezagutzera, betetzera eta betearaztera ere bai. Horretarako, Administrazio-kontseiluko idazkariak ale bat emango die eta hori jaso izanaren agiria aurkeztu beharko dute sinatuta. Era berean, idatziz berretsi beharko dute hori betetzeko konpromisoa izendapena edo berrautapena onetsi aurretik, hain zuzen ere, Administrazio-kontseiluko idazkariak ezartzen duen moduan.

## **3. artikulua.- Hedapena**

Arautegi hau sozietatearen Gardentasun Atarian eta Akziodunaren Estranetean argitaratuko da.

## **4. artikulua.- Interpretazioa eta aldaketa**

Arautegi honen interpretazioaren eta aplikazioaren inguruan sor daitezkeen zalantzak Administrazio-kontseiluak berak ebartziko ditu eta, hala badagokio, egoki deritzon aldaketak egingo ditu.

Administrazio-kontseiluak arautegi hau aldatu ahalko du bertan dauden eta ordeztuta dauden kontseilarien gehiengoak hartutako akordioaren bidez. Aldaketa egitea presidentziaren beraren edo edozein kontseilariren ekimena izan daiteke; hala, gaia jorratzen den bileraren deialdiarekin batera aurkeztu beharko dira proposamenaren testua eta justifikazio-txostena.

## **5. artikulua.- Kontseiluaren jarduteko printzipio orokorrak**

- Administrazio-kontseiluak bere eginkizunak garatuko ditu sozietatearen misioan, ikuspegian eta balioetan xedatutakoaren arabera eta bere gizarte-interesa bilatuz.
- Beti jardungo du legezketasunaren esparruan, bere Korporazio-gobernuko Sistema osatzen duten arauak betez eta Sozietatearen Kode Etikoan ezarritako eta jasotako printzipio etikoak errespetatuz.
- Akordioak hartzerakoan, bereziki inbertsio-planekin lotutakoak, kontuan hartuko ditu horien ekonomia-, gizarte- eta ingurumen-ondorioak, baita horiek Eusko Jaurlaritzaren jarraibide eta politiketara egokitzen diren ere.
- Interes-talde desberdinak sozietatearen proiektu globalean inplikatzeko sustatuko du.



- Ekonomikoki eraginkorra den kudeaketa bultzatuko du, une bakoitzeko aurrekontu-esparrura egokitutakoa eta arriskuen kudeaketa egoki batek babestutakoa.

## **6. artikulua.- Kontseiluaren egitura eta osaera**

1. Administrazio-kontseilua gutxienez hiru (3) administratzailek eta gehienez hamabi (12) administratzailek osatuko dute; horiek, gehienez ere, kargu hori burutu ahalko dute sei (6) urtez eta berriz ere hautatuak izan ahalko dira mugarik gabe gehieneko iraupen berbereko epeetan.
2. Batzar Nagusiak kontseilariak izendatzeko dituen ahalmenak gorabehera, kontseiluak kide independenteak eta bertako langileak izendatzea sustatu ahalko du. Nolanahi ere, bermatu beharko du horiek eskudunak direla, gaituak eta egokiak kargurako eta horien % 40, gutxienez, emakumeak direla.
3. Kontseiluaren presidentea horretarako izendatutako pertsona izango da eta, legez eta estatutuetan ezarritako terminoetan, presidenteordetzarako izendatutako pertsonak ordeztuko du beharrezkoa denean.
4. Kontseiluaren presidentek horren saioetan parte hartzera gonbidatu ahalko ditu kontseilariak ez diren pertsonak, edonola ere, bozkatzeko aukerarik izango ez dutenak.
5. Kontseiluak bere baitan eratu ahalko ditu beharrezkoak deritzon Batzorde Delegatuak edo Informazio-batzordeak, baita horien funtzionamendu-arauak eman ere.
6. Batzar Nagusiak kontseilariak izendatzeko dituen ahalmenak gorabehera, kontseiluak bermatuko du horiek eskudunak direla, gaituak eta egokiak kargurako, bereziki berriz hautatuak diren kasuetarako, eta, horrez gain, saiatuko da lortzen horietako % 40 emakumeak izatea.

## **7. artikulua. Kontseiluaren ahalmenak**

Administrazio-kontseiluak legean edo estatutuetan Batzar Nagusiari esleitu ez zaizkion ahalmen guztiak izango ditu:

Gainera, hauxe dagokio kontseiluari:

- a. Sozietatearen Plan Estrategikoa onestea eta aldizka egiaztatzea horren garapen-maila eta benetako egikaritzapena, hala badagokio, neurri zuzentzaile egokiak ezarriz.
- b. Ekitaldiko aurrekontuak onestea.
- c. Aldizka egiaztatzea urteko Kudeaketa-planaren eta Arriskuen Kudeaketa-sistemaren egikaritzapena.
- d. Enpresaren Aginte-taula Integralaren segimendua egitea, baita horren adierazleen egokitasunaren eta horien bilakaeraren segimendua ere.
- e. Korporazio-gobernuko Sistema osatzen duten oinarriak eta arauak onestea.
- f. Korporazio-gobernuaren urteko txostena onestea.



- g. Kode Etikoa onestea.
- h. Arrisku Penalen Antolakuntza, Kudeaketa eta Kontrolerako Politika onestea, martxoaren 30eko 1/2015 Lege Organikoaren 31 bis artikuluekin bat etorritik, eta kontroleko organo autonomoaren izendapena ere bai, osaerari eta eginkizunei dagokienez ezarritako legebetekizunekin.
- i. Arrisku Penalen Kudeaketarako Sistemaren egoera egiaztatzea eta horren berri ematea.
- j. Gobernantza eta gizarte-kudeaketa gardena eta profesionala sustatzea, hori bultzatzeko eta etengabe hobetzeko neurri egokiak hartuz.
- k. Kontratazio publikoko barne-instrukzioak eta prozedurak onestea.

### **8. artikulua. Eginkizunak eskuordetzea**

Administrazio-kontseiluak bere eskumenerako zenbait ahalmen eskuordetu ditzake, hain zuzen ere, legeak edo estatutu sozialek berriaz eta eskusiboki kontseiluari esleitzen ez dizkietenak. Eskuordetze hori eskritura publikoan jasoko da eta merkataritza-erregistroan inskribatuko da.

### **9. artikulua. Kontseiluaren presidentzia**

- 1. Kontseiluko presidentek sozietatearen goi-zuzendaritza eta ordezkaritza egikaritzen ditu, baita Administrazio-kontseiluaren lidergoia ere. Legearen eta Estatutuen arabera dagozkion ahalmenez gain, hauek ere izango ditu:
  - a. Bileretan kontseilarien eztabaida eta parte-hartze aktiboa sustatzea eta antolatzea, betiere bermatuz erabakiak aske hartzen dituztela eta iritzia askatasunez ematen dutela.
  - b. Bileren gai-zerrenda ezartzea, non jorratuko diren gaiak jasoko diren eta aurreikusitako iraupenaren kalkulua adierazten den, gutzizkoa eta jorratu beharreko gai bakoitzarena.
  - c. Saiatzea, idazkariaren laguntzarekin, kontseilariak gutxienez 10 egun natural lehenago jasotzen dutela informazio/dokumentazio nahikoa gai-zerrendako puntuen gainean eztabaidatu ahal izateko. Salbuespen gisa, urteko kontuen formulazioa jorratzen denean, gutxiengo epe hori 15 egun naturalekoa izango da.
  - d. Kontseilariaren bat kontseilura ez joatearen kausak egiaztatzea, baldin eta ohikoa bada ez joatea.
  - e. Administrazio-kontseiluari aurkeztea sozietatearen funtzionamendu onerako egokitzat jotzen dituen proposamenak eta, bereziki, kontseiluaren beraren eta gainerako gizarte-organoen funtzionamenduari lotutakoak. Horrez gain, hala badagokio Administrazio-kontseiluaren batzordeak osatuko dituzten pertsonak proposatuko ditu.
  - f. Kontseiluarentzat eta horren kideentzat onetsitako autoarauetako arauen betetzearen buru izatea, baita horri dagokion ebaluazioaren buru ere, ezarritako prozeduraren arabera. Hala badagokio, abian jarriko ditu antzemandako urritasunak zuzentzeko edo hobetzeko proposamenak.



2. Presidenteak bere atribuzio batzuk edo guztiak eskuordetu ahalko dizkio beste edozein kontseilariri edo zuzendari nagusiari. Eskuordetze hori lege- eta estatutu-aurreikuspenen arabera egin beharko da, idatziz eta irismen eta epe zehatz batzuetarako.

#### **10. artikulua. Kontseiluaren presidenteordetza**

Presidenteordeak presidentea ordeztuko du horrek ezintasunen bat duenean edo bertan ez dagoenean eta horrek dituen eginkizunak eta atribuzioak hartuko ditu bere gain. Presidenteordea ez balego, kontseilaririk nagusienak ordeztuko du.

#### **11. artikulua. Kontseiluaren idazkaritza**

Administrazio-kontseiluak hornituko du idazkari-kargua; horretarako ez da beharrezkoa izango kontseiluko kide izatea. Kontseilaria ez bada, idazkariak ez du bozkatzeko eskubiderik izango kontseiluaren deliberazioetan.

Idazkariak kontseiluan hartutako akordioen baliotasun juridikoa bermatzeko eskumen juridikoa izango du, kontseiluaren aholkularitza juridikoa bere gain hartuz, eginkizun hori hirugarren bati kontratatzen bazaio izan ezik.

Idazkariak presidentea lagunduko du bere eginkizunetan eta honetaz arduratuko da:

- Beharrezko aholkularitza eta informazioa ematea kontseilariari
- Gizarte-dokumentazioa kontserbatzea
- Akta-liburuetan behar bezala islatzea saioen garapena eta liburu horiek zaintzea
- Gizarte-akordioak ziurtatzea
- Kontseilarien esku jartzea aktak eta akordioak, gehienez ere, saioa egiten denetik 10 egun naturaleko epean
- Adostutako gainerako hedapen-ekintzak burutzea, bereziki Korporazio-gobernuko Sistemak jasotakoak

Idazkariak ohartaraziko ditu, nolana ere, bileren garapenean gerta daitezkeen balizko ez-betetzeak, zehazki, Administrazio-kontseiluaren legezkotasuna eta barne-funtzionamendua arautzen dituzten funtzionamendu-arauen eta prozeduren aplikazioari dagokionez. Horretarako, arautegi hau aplikatzeko konpromiso bat sinatu beharko du.

Idazkariak, hala badagokio, beharrezko laguntzarekin, auditoria egingo du, baita kontseiluaren eta kideen autoarauketako neurrien betetzearen ebaluazioaren urteko txostena ere, Korporazio-gobernuko Sistemak ezartzen duenari jarraiki.

#### **12. artikulua. Kontseilarien izendapena eta horiek kargua uztea**

1. Kontseilariak, izendapena onartu aurretik, Arautegi honen, Kontseilariaren Estatutuaren eta Kode Etikoaren (Korporazio-gobernuko Sistema-I Eranskina) kopia jasoko dute eta hori jaso izanaren



adierazpena egin beharko dute. Halaber, Korporazio-gobernuko Sistema osatzen duten arauetan ezarritako betebeharrak eta eginkizunak betetzeko konpromisoa sinatu beharko dute.

2. Kontseilari berriek enpresaren Harrera-plana izango dute, hain zuzen ere, sozietatearen funtsezko alderdien inguruan orientatzekoa. Gainera, kargua burutu bitartean, kontseilari guztiek izango dute etengabeko prestakuntzako plan bat, sozietatearen egoeraren ezagutza eguneratua izan dezaten.
3. Kontseilariak, baldin eta izendatzeko, berriz hautatzeko, banatzeko, zigortzeko edo, existitzekotan, bere ordainsaria arautzen duen sozietatearekiko kontratua onesteko proposamenen eraginpean daudenean eta bere gainerako eskubideak eta betebeharrak eztabaidatzen direnean, ez dira bileran egongo besteek eztabaidatzen duten bitartean eta dagozkien akordioak bozkatzen dituztenean.

### **13. artikulua. Kontseiluaren bilerak**

1. Administrazio-kontseilua presidenteak egoki deritzon maiztasunarekin bilduko da eta hiruhilekoko saioen gutxiengo kopuru bat bete beharko du.
2. Deialdia, premia-arrazoiak ez baleude, 10 eguneko gutxieneko aurrerapenarekin egingo da, urteko kontuen formulazioa jorratzen denean izan ezik. Kasu horretan, epe hori 15 egunekoa izango da eta, deialdiarekin batera, jorratuko diren gaien zerrenda erantsiko da, bileraren ohiko edo ez-ohiko izaera zehaztuz eta jorratuko den gai bakoitzaren zenbatetsitako iraupena eta bilera osorako aurreikusitako iraupena jakinaraziz. Era berean, erantsiko da edo kontseilarien esku jarriko da eztabaidatuko diren gaiak behar bezala prestatzeko beharrezkoa den dokumentazioa. Kontseilariak beharrezkotzat hartzen duten informazio gehigarria eskatu ahalko diote presidenteari edo idazkariari.
3. Kontseilarik kontseiluaren bileretara joan beharko dira eta, ezin dutenean, saiaturiko dira bere ordezkariak beste baten alde uzten, ezarritako moduan, alegia. Zalantzarik egotekotan, presidenteak erabakiko du emandako ordezkariaren baliotasuna.
4. Salbuespen bezala, Administrazio-kontseiluaren bozketak idatziz egin ahalko dira eta bilerarik gabe, betiere kideak horren aurka ez badaude. Kasu honetan, kontseilariak presidenteari izenean jardungo duen Administrazio-kontseiluaren idazkariari bidali ahalko dizkiote bere botoak eta aktan agerrarazi nahi dituzten gogoetak, hain zuzen ere, deialdirako aurreikusitako bitarteko berberen bidez. Prozedura honekin hartutako akordioak jasoko dira legean aurreikusitakoaren arabera idatzitako aktan.

### **14. artikulua. Saioaren garapena eta akta**

1. Saioa deialdiaren gai-zerrendaren arabera eta presidenteari zuzendaritzapean garatuko da. Horrek gaien ordena alda dezake baldin eta horrekin eztabaida erraztuko bada eta hartuko diren akordioen kalitatea hobetuko bada; izan ere, hasiera batean aurreikusitako gairen bat edo batzuk ez jorratzea erabaki dezake.





2. Saioa bukatzerakoan, idazkariak akta irakurriko du eta, hala badagokio, hori onetsiko da. Nolanahi ere, akta euskaraz eta gaztelaniaz idatziko da.
3. Kontseiluak neurri egokiak hartuko ditu idazkariak sozietatearen dokumentazioa eta liburu ofizialak zaintzeko arauak eta prozedurak modu zuzenean aplikatzen dituela bermatzeko. Zehazki, horren aldizkako egiaztapenak egingo ditu zuzenean edo zuzendaritza nagusiari eskatuko dio horiek egiteko.